

**Loiola**

**«Gorazden ez dago gizarte bizitzarik»**

Jon Eguren eta Estitxu Alvarez "Txokolarte" arte tailerreko kideak Bosniako Laguntasunaren Jaialdian egon berri dira. Hona hemen bikotearekin izan dugun solasalditxoa.

Nola sortu zen Bosniara joateko ideia?

Jon Eguren. SOS Balcanes Gobernu Kanpoko Erakundeak joateko proposamena luzatu zigun. Ondo iruditu zitzaigun eta baietza eman genion. Guztira, 46 lagun joan gara.

Zer da Laguntasunaren Jaialdia?

Estitxu Alvarez. Laguntasunaren Jaialdia urtero egiten den nazioarteko jaialdia da. Hainbat tokitako taldeek parte hartu ohi dute: Alemania,



Goian, Estitxu Gorazden arte ekintza batean. Behean, "Txokolarte"ko kideak.

Suedia, Britainia... Ka-lean egiten da eta bost egunez hainbat emanaldi eta ekintza egiten dira: kontzertuak, antzerki saioak, arte ekintzak eta abar.

Zer egin duzue "Txokolarte"-koek?

EA. Batetik, "Paisaia horizontalak" izeneko arte ekintza egin genuen. Nabarmendu nahi duzun zoru zatiari pintura ematen diozu, eta zapalgailu batez irudia inprimatzen da. Esaterako, lehegailuek txikitutako zoruak inprimatu ditugu. Horrez gain, silografia tailerra egin genuen.

Nola ikusi duzue herrialdea?

EA. Jende gehiena lanik gabe dago. Azpiegiturei dagokierenez, berriz, Gorazden musika

eskola eta kiroldegia besterik ez dago.

JE. Bosnian sartu orduko, gerraren aztarnak ikus daitezke. Kontraste handiak daude: etxe berri baten ondoan suntsitutako beste bat dago eta abar. Gorazden argiak, tabernak, kotxeak... daude. Egoerak normala dirudi. Hala ere, gerraren ondorioa, fisikoa baino, soziala da. Kultur suspertzailuek guztiak kanpoan dira egun. Beste hainbeste gertatu da Sarajevon.

Zein izan da bosniarren erantzuna?

**Estitxu Alvarez:**  
**«Hemen kultur heziketa falta da»**

JE. Jendea gauzak ikusteko eta egiteko irrikitan dago, bertan ez baitago gizarte bizitzarik. Izatez, berriz, musulmanak dira, esku zabalak eta atseginak.

Orain beste zerbaitekin ekinmen dituzue esku artean.

EA. Bai. Urrian "Okupgraf" arte jardunaldien barruan, "Marrakia margotu" ekintza egingo dugu Okendon. Jendeak "Txokolarte"-n inprimatutako hainbat artista grafikoaren lanak margotzeko aukera izango du.

JE. Grafikak erreproduzioaren ahalmena du eta jendeak obra batean esku hartuz gero, artelana aldatu egiten da. Beraz, publikoak amaituko du artelana. Gure ustez, arteak ez du mugarik.

Madrilera ere joatekoak zarete.

Bai, Espainiako Grabatu Ferriara gonbidatu gaituzte. Bosniako lanak eramango ditugu. Horrez gain, "Paisaia Horizontalak" egingo ditugu kaleetan.

Horrelako ekintzetan zapalgailu eta guzti ibili ohi zarete. Erraza al da Donostian horrelakorik egitea?

Arte ekintzok ez dira antzerki saio bat edo beste edozein arte adierazpen bezala ulertzen. Alde horretatik, hemen kultur heziketa falta da.

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:



**kutxa**

zuri esker  
gracias a ti



gizarte ekintza  
obra social